

BERNAT SORIA MIGUEL HERNANDEZ UNIBERTSITATEKO BIOINGENIARITZA INSTITUTUKO ZUZENDARIA

GARI GARAIALDE

«Zelula multzoek ba ote dute arimarik? Nire ustez, zelulak dira, besterik ez»

Zelula-amak aktualitate bizia dira, eta polemikoa. Bernat Soria ikertzailearentzat, berriz, eguneroko jarduneko lehengaia dira. Hala, zelula horiei buruz aritu zen atzo EHUko Uda Ikastaroetan.

Arantxa Iraola | DONOSTIA

Genetik zelulen funtziora ikastaroaren barruan —Euskal Herriko Unibertsitateak BBVA Fundazioarekin antolatua— eskaini zuen atzo bere hitzaldia Bernat Soria zientzialariak. Besteak beste, berak eta bere lankideek Alacanteko Miguel Hernandez

Unibertsitateko Bioingeniaritza Institutuan zer-nolako lanak egiten dituzten azaldu zuen. EGUNKARIARI ere hainbat azalpen eman zizkion. Arretatsu.

■ **Bioingeniaritzaren ardatzetako bat zelula-amak dira, zelula arrunt botereatsuak. Kontaiguzu, zer-nola-**

ko ahalmena dute? Batere mugarik gabea?

Pluripotenzialak dira, eta, ondorioz, era askotako zelula bihurtzeko ahalmena dute. Horrek oso erakargarri bihurtzen ditu. Izan ere, esaterako, diabetesari, gaitz neurologikoei eta bihotzeko gaitzei aurre egiteko egokiak diren zelulak bihurtu

ZAILTASUNAK

«Ama-zelulekin laborategian gauzatu behar izaten da giza enbrioieta era naturalean bederatzi hilabetean gertatzen dena... eta ez da erraza»

HASTAPENAK

«Kontinente berri-berri baten aurrean bageunde bezala gaude. Eta esploratzen oraintxe hasi gara...»

daitezke. Ahalmen hori erreala da. Ezin da auzitan jarri.

■ **Eta ahalmen horri etekin ateratzeko gai da egun zientzia?**

Horretan ari gara, baina ez da erraza. Izan ere, laborategian gauzatu behar izaten da, giza enbrioieta era naturalean bederatzi hilabetean gertatzen dena... eta ez da erraza.

■ **Giza enbrioiak ez dira, ordea, zelula-amak lortzeko bide bakarra, ezta?**

Hala da. Pertsona nagusien ehunetatik ere lor daitezke zelula-amak.

■ **Zuek, gainera, Alacanteko institutuan bide hori saiatzen ari zarete, ezta?**

Bai, hala da. Pertsona helduen hesteetako epitelioetatik zelula-amak erazten ari gara... Eta nahiko emaitza onak lortzen ari gara. Zelula horiek ez dute enbrioietatik erazten direnen ahalmen bera, askoz ere ugalkortasun urriagoa dute, baina alternatiba ona izan daitezke.

■ **Nolanahi ere, oro har arantzatsua eta polemikoa da zuen ikerketa eremua...**

Hala da. Kontinente berri-berri batean bageunde bezala gaude. Eta esploratzen oraintxe hasi gara...

■ **Eta erdi-galduta ibiltzen zarete batzuetan?**

Bai. Izan ere, biologian oinarritzat genituen zenbait ezagutza kolokan daude. Hor bihurtzeko bat izan zen: *Dolly* lehen ardi klonikoaren jaiotza. Horren eragina nabarmena da oraindik, orduan argi ikusi baikenuen zelula baten nukleoan dagoen informazioa berriro programatu daitekeela. Horretaz jabetzeak irauli egin ditu gure jardunaren oinarriak.

■ **Etikaren ikuspegitik ere ez da nahaste-borrasterik falta gaiaren inguruan. Izan ere, zelula-amak erazteko giza enbrioiak erabiltzen dira maiz...**

Hala da. Nire lan eremua ez da etika, baina argi dut bakoitzak bere etika norbere sinesmenetan oinarrituta eraikitzen duela. Nik, berriz, datuak eman ditzaket. Esaterako, Espainian izoztuta dauden giza enbrioiak ekar ditzaket gogora. Soberan utzita-

koak dira, eta legeak soilik zera dio, bost urtean gorde behar direla. Ondoren zer egin behar den ez du esaten...

■ **Eta zuk begi onez ikusiko zenuke enbrioi horiek ikerkuntzara bideratzea...**

Aukera enbrioi horiek suntsitzea edo ikerkuntzara bideratzea bada, bigarren aukerarekin nator bat... Izan ere, gaixo dagoen jende askori sendabidea lortzeko aukera eman diezaikeke.

■ **Eztabaida handia dago, ordea, horren inguruan...**

Bai, beno, enbrioi sortu berria pertsona den eztabaidatzen hasi gaitezke... Nolanahi ere, izan daitezkeen erantzunen oinarrian norbere sinismenak daude. Gainerakoan, datu biologikoa oso sinplea da; zelula multzo bat, zelula multzo bat da, besterik ez. Hor, gainera, galdera berehala sortzen zait niri, batez ere abortua legeztatua duten herrialdeentzat; zilegi da hiru hilabeteko fetu bat abortatzea, eta nik ezin dut laborategian sortutako zelula multzo bat erabili?

■ **Ez da galdera erraza...**

Nire ustez, aipatu ikuspegiari jarraiki ez da gaitzetsi behar laborategian zelula batzuk sortu eta horiek erabiltzea... Hor tartean jendearen sinesmenak daude, ordea. Izan ere, laborategian nik egiten ditudan zelula multzoek ba ote dute arimarik? Nire ustez, zelulak dira, besterik ez.

■ **Zuek ama-zelulak erabiliz diabetesa sendatzeko ahaleginak egiten ari zarete. Zein fasetan dago zuen ikerkuntza?**

Oraingo saguekin ari gara ikerketak egiten, eta emaitza baikorrrak lortu ditugu... Diabetesak jotako sagu batzuk, haientzat propio egokitutako zelula-amak ezarrita, sendatu egin ditugu. Orain prozesu guztia giza zelulekin egin behar dugu. Prozesu luzea izango da, baina itxaropenik ez zaigu falta.

■ **Eta noiz lortuko duzue diabetesak jotakoen sendabidea?**

Hiru urte inguru beharko dira transplantatzeko moduko zelulak eskura izateko... Gero horiek ezartzen hasteko bidea ere luzea izango da. Bost urte igaroko dira oraindik, gutxienez...